

SEMEIOTIKE TEKHNE

Jose Manuel Erzilla

UPV-EHUko Informazio Zientzietan Lizentziatua

Lantto honetan erakutsi asmo dugu: lehenik, Semiotikak bere sortzapen eta iturburuan izaniko bi proposamenduak, eta bi proposamenduotarik, ea zeini jarraiki izan zaion Semiotikak egundaino ibilitako bidea, eta bide edo bilakabide honetan zehar, hurrenez hurren izan diren faseak; bigarrenik, Semiotikan halabeharrez funtsezko diren **signoa** eta **sistema** kontzeptuak zer erraitera datozen, eta halaber hedatuko gara signoari berari dagokion sailkapen eta semiosiaz; azkenik, ezinbertzezko dugu aipatzea zeintzu diren Semiotikak, bere heldutasunera iristekotz, Linguistikaren teoriatik maileguz hartu behar izan dituen kontzeptu nagusiak.

In this short work I have tried to do two things: In the first place, demonstrate the two original proposals of semiotics and which of them has continued its development, along with the main stages of this development; secondly, I have considered "meanings" and "systems", fundamental concepts in semiotics, as well as the classification and "semiosis" of signs. Finally, it is essential for us to know about the main ideas that semiotics has taken from linguistics in reaching its maturity.

Semiotika: sortzapen eta historia

Iragan mendearen azken laurdenean Charles Sanders Peirce (logikari eta axiomatikari amerikakoa) eta mende honen lehen dekadatan Ferdinand Saussure (linguista suitzarrak) ohartu ziren, nor bere espezialitatetik baina, Jakintza-adar baten premiaz, orduandaino ez zenaz, zeinak signo verbal eta ez-verbalean estudiatzeko ardura bere gain hartu beharko zuen. Peirce-k burutan darabil eta eskatu ere egiten du signifikatuen gainean aritu behar duen Jakintza-adarra, beroni Semiotika ezarri ziolarik izentzat. Adar berri honek, beti ere Peirce-ren arabera, adostua behar zuen izan ordenamendu materialari, hots, mundu fisikoaren agerkunde orori. Ikuskera honek, geroan, Morris baitan izanen du jarraitunik handiena.

Saussure-k bestalde, ikusirik Linguistika Erkatuaren bitartez frogatu ahal izaniko lege eta erregularitateak, sistematzat hartuko du lengoaia, signoa delarik, sistema honen barnean, elementurik garrantzizkoen. Honetara, erraiten du Saussure-k: "Kontzebi liteke Jakintza bat, signoen bizitzea ikasi behar duena bizitze sozialaren beraren baitan; Jakintza honek parte hartu beharko du psikologia sozialean, eta honenbertzez psikologia orokorraren baitan; guk Semiologia izeneztatuko dugu; ...Linguistika ez da besterik Jakintza Orokor honen parte bat baino" "Saussure-n ikuskera eta ulerkera honi jarraiki, Linguistika Semiologiaren patroia nagusi izatera etorriko da, zeren Linguistika bera baita, diren lengoaien

artean, adierazpen-sistema konplexu eta hedatuenaz, hots hizkuntzaz, axolatzen eta agitzen dena, nahiz berau (hizkuntza) sistema partikular bat baino ez den. Saussure-ren teoria honen arabera beraz, signoa komunikazio-prozesuaren barnean finkatua datza. Saussure-k, honelako ondorio-etara heldu zenean, seguraski bere gogoan ez zerabilkeen soil-soilik signoen gaineko ardura hartuko duen Jakintzaren adarra, baizik giza harremanak oro bere barnean hartu behar dituen Jakintza orokorragoa, hau da, Soziologia, berau orduantxe sortu berri Jakintzaren adar gisa. Saussure-ren iritziz, hizkuntza komunikazioaren praxis sozialean ezarria dago oso-osoan. Horretaz bada, Linguistikak, bere eginkizuna perfektuki konpli dezan, on-ongi ezagutu behar izanen ditu giza harremanetan erabili ohi diren signoak, eta areago, harremanak harreman bihurtzen dituzten konbentzioak ere. Alta bada, ikuskera honen arabera, Jakintzaren adarrok ordenamendu hierarkiko baten pean ezarririk honela genuke: Linguistika Semiologiaren barnean, eta Semiologia Soziologiaren. Tamainuz tipitzera (edo handitzera) doazen hiru panpinatoren antzo, non, ikuspuntuaren arabera, edo lehenetik sortzen den bigarrena eta honetarik hirugarrena, edo hirugarrenak bigarrena irensten duen eta honek lehena. Nolanahi ere, ezinbestez dira hirurak batasun baten hiru agerkunde.

Peirce eta Saussure-ren ekarpena da, orduandaino Zientzia Sozialak ulertzeko zegoen moduaren aurrean (salbuespen egirik Renaissance aroko pertsona batzuek), Jakintzaren

adarrak oro osotasun bakar batean ulertu izana eta horretaraxe iharduteko dagoen premia klarki erakustea. Hemendik dator beraz Jakintzaren adar guztien arteko disziplinaritatea, elkarren arteko lazamendua, beraz hainbertzerainoko delarik, non adarrak banan eta bakoizka harturik ez daitezkeen esplika ez entelega, behar dutelarik hortako beste ororen artean formatu osotasun eta gorputza.

Batipat ere Saussure-ren aritzeko modu eta ereduek, zeinak Cours de Linguistique General obra postumoan argitara eman ziren, bistan da, posibilitate ikaragarrien aitzinean jarri zituzten bere ondotik heldu semiotikoak, izen honez deituak izan ziren lehenak. Alabaina, iragan beharko du zenbait urtek harik-eta mende honetako semiotiko (linguista) handiak ager daitezen artean. Hor datoz bada: Hjelmslev, Bülher, Trubetzkoi, Buysens, Martinet, Jakobson etab. ..., zeinak apurrez-apur baitoaz, soziologia, psikologia, matematika eta hizkuntzaren gaineko filosofiaz baliatuz, Saussure-ren ikuspuntuak finkatuz eta sakonduz. Honako hau da gogoeta eta teoriaren sasoia, teorizazio semiotikoaren sasoia. Aldi berean, Saussure-k, hizkuntz-sistemaren analogiaz baliatu zelarik, proposaturiko sistema signifikatzaileen estudioa, Linguistikaz gainerako beste Jakintza-adar batzuetatik ere aditua, ikasia eta konprenitua izan zen. Horra hor, diogun honen erakusle: formalista errusiarrek hasitako literaturaren estudio semiotikoa, Lévi-Strauss-en estudio etnologikoak, Jakobson-en estudioak lengoia poetikoari buruz...

Roland Barthes, Zientzia formalak ezin klasifikatu izan duen pertsona hau izanen da Saussure-ren ordenamendua (oroit ...Linguistikak parte bat baino ez luke izan behar Semio-logian...) azpikoz gora ezarriko duena. Barthes-ek, sostengutzat hartu zukeelarik Hjelmslev-en postulatu-tuetako bat (...signo sistema orotan dago isomorfismoa dioena), erraiten du ezen Linguistika ez dela ez signoen gaineko Jakintza orokorraren parte, guztiz bestela baino, hau da, Semio-logia dela Linguistikaren parte, ezen -darraikio Barthes- zail da pentsatzen irudi edo objektuen sistema batzuetan, zeinek beren signifikatuak hizkuntzaz landa dituzten (Eléments de Semio-logie). Barthes baina ez da geratzen aparatu teorikoan. Badu eginik, honetaz gain, Linguistikaren metodoa aplikatuz, cathc-aren estudio semiotikoa, beronek bere denboran ekarri zuelarik: batetik, komunikazio-sistema eta signifikatu-sistemen arteko muga konbentzionalen gaineko polemika, hau da, indizio/signoa, konszientzia/prekonszientzia kontzeptuen gaineko polemika, eta horrekin batera, kontzeptu horiezko iritzien errebisioa; eta bestetik, praxis honen bitartez ikusi ahal izan zen nola, hizkuntzaren gaineko modelo semiotikoa oinarritzat harturik, analogiaz, antzeko beste eredu batzuk forma zitezkeen, eta aplika. Honela, Semiotikaren eginkizuna, modelo linguistikoa sostengatuz eta beronetiko erakuspenez profitatuz, beste komunikazio-sistema batzuen ikaskuntzarako balio dezaketen modeloen elaborazioa izatera dator. Guztiarekin ere, laster ikusi zen modelo linguistikoa ez zela beti eta nonahi egoki, eta

signo-sistema bakoitzak bere modeloa erdietsi behar zuela. Hortaz Kristeva-k, Semiotika teoria eta aplikazioetan lehenetako denak, dio: "Linguistikarekiko morroitasuna bazterrera utziaz, Semiotika signifikatu-sistemen axiomatizazio bezala elabora daiteke".

Honenbestez bada, fase teoriko eta fase linguistikoaren ondoan, Semiotikaren azken fasean sarturik gara, supralinguistikaren fasean alegia. Honetantxe dute leku, oso-osoan, Christien Metz-ek zinemaren lengoaiatz egin ikertzapenek, Barthes eta Kristeva-k burutu literatur testuzko estudioek, Derrida-ren *Grammatologiak*, Greimas-en saioek forma eta substantziaren arteko lotura metafisiko eta misteriotsuez... Hartara ere Kristeva-ren hitzak ekarriaz "...Semiotika da, hau beratu modelatzen ari den teoriaren ekoizpen ... ezin egin daiteke Semiotikarik, baldin eta Semiotikaren beraren kritika modura ez bada". Ondorenez, bada, Semiotika, honek beronek darabilen metodoaren kritika eginez, semanalisia izatera etorri da.

Azkenik ere puntu horretara jo duelarik, Semiotikari bi bide ageri zaizkio antzinerat: a) komunikazioaren ikuspuntutik, sistema semiotikoen formazioari ekitea, eginkizun formal hutsa, nahiz beharrezkoa.., alegia, erradioaren semiotika, familiaren semiotika... eta motako horretako eginkizunei ekitea; b) komunikazioaren problematika barnean aritzea eta ikertzea, hots, diskursuaren kreazioan, testuaren barnean aztertzea, horretaz gogoeta egitea, testutik burmuinera, testutik

mekanismo mentalera heltzen saiatzea. Bigarren eginkizun honetan, ez soilik testuaz axolatu behar du Semiotikak, bai eta testua sortu eta apaindu antzinean testu-igorleak bere baitan (konsziente eta inkonszientean) darabilen erranahia kreatorreko ekintzaz ere, hala dio Kristeva-k. Hortakotz, bistan da, Semiotikari ezinbertzezko zaio Jakintzaren beste adar batzuen ekarpenez hornitu eta baliatzea, hala nola logika, psikoanalisi, hizkuntzaren filosofia..., baina baita neurologia, biologia, kimikak... diotenaz ere.

Alta bada, orain beha dezagun Semiotikaren barnean ditugun bi elementu behar-beharrezkoetara, signora eta sistemara alegia, eta dakusagun halaber kontzeptu hauezaz izan diren uste eta gogoetak. Hala ere, aitzina gabe, ekar dezagun gogora komunikazio prozesuari dagokion eskema basikoa, non ezarri behar baita signoen sistema:

"mezuaren igorlea - kanala - mezua - mezuaren hartzailea"

Jakin dezagun ezen, prozesu horretan, mezua, betiere eta ezinbertzean, signoen sistema barrenean formatua dela, signoen sistemaren erabilera partikular bati jarraitzen zaiola.

Signoa

1. Etimologia. Historia

Arestian erakutsi bezala, Komunikazio-sistemaren barrenean igorle eta hartzailearen artean, harat-honat dabilen elementu materiala signoa

dugu. Signoa da, mezua bera eta mezu hau sentimentera garraiatzen duen zer materiala. Ez dieziogun baina inori aurrerik har eta ikus dezagun, laburki den arren, elementu funtsezko honi nolako iritzia eman dion mendebaldeko pentsamenduak, berau berorrezaz kontuan erori zenaz geroztik.

Hasteko, dakusagun bere etimologian Jakintzaren adar honi izen ematen dion terminua bera. *Signum* latin hitza da grekotiko *semeion* hitzaren parekoa, grekoz erran nahi duelarik: *symptoma*, marka, lorratz, seinale, ikur... Horretarik bada, Semeiologia [Semiologia] dateke *semeion* deritzanaren estudioa eta Semeiotike [Semiotika] *semeion* deritzanaren gordailua.

Historian ageri arabera, nahiz bazegoen ere Platon eta Aristoteleren baitan present, *stoikoak* (Zenon Eleakok K.a. III. mendean sortu eskola) izanen dira lehenak *semeion* delakoari buruz teorizatzen. Bazuten bai hauek motiborik aski horretarako, ezen beren *sylogismoen* teoria fundatzeko beharrezko zuten. Honela, *stoikoen* aburuz, signoen prozesu orotan bereizi behar zen: *semainon* delakoa (signoa bera, entitate fisiko zenaren partetik), *semainomenon* delakoa (signoak erraiten duena, kontzeptua alegia, izakera fisikorik ez duena), *pragma* delakoa (signoak izendatzen duen objektua edota egitatea, izakera *physiko* edota *pneumaduna* beraz):

. *semainon* (signifikatzailea)

semainomenon.	. <i>pragma</i>
signifikatua	referentea
konzeptua	objektua

Trigono honetaz geroztik, definizio eta izen berriak erabili izan dira, batipat Linguistikan, baina betiere hiru muturrok bere horretan iraun izan dute eta diraute. Sarrarazi da, teorizazioan, elementu berririk orduandaino ohar-kabea izandakorik, hala nola interpretatzaileak nahitaez ukan behar borondatea eta presentzia.

Stoikoen amaitu baino lehen, derragun ezen eurok izan zirela, bermoduan, sistema terminua erabiltzen lehenak, nahiz berau zentzu zabalean erabili, hots, kosmoaren sistema bezala, baina baita zentzu determinatu eta antropologikoan ere: ortzean ageri signoak (astrologia) eta gorputzean ageri direnak interpretatzeko (mirikuntza). Ikus daitekeenez, Jakintzaren baitan: zenbat sistema, hainbat disziplina.

Erdi Arora gatzela, *Skholatikoek* signoa definitu zuten ziotela: "signoa da beste zerbaitetara garamatzen zera". Occamistek, urrunago joanez, errefusatu egin zuten *universuaren* izatetasuna, existentzia erreala bera, eta hortaz bada ez zuten beste deusik onesten lengoia indibidualaren terminu eta signoen haranzkorik. Port-Royal izenpean ezagun direnekin, beren *Logika* eta *Grammatikarekin*, signifikazio-prozesua (semiosia deritzona) ulertua izanen da arrazoi-namenduaren sare formaltzat. Leibnizen pentsamendua da ordea, inoiz

egin izan den enpresa semiotikorik handiosena: beronen proiektuaren oinarrian matematika datza. Locke, bere aldetik, saiatu zen giza lengoaiaren *semiosis* (signoaren parte materialaren eta parte kontzeptualaren arteko batasun-prozesua) espezifikoa. Locke-ren ondutikoak, atxikirik lengoaiatik datorren materialari eta, gramatikatik abiatuz, saiatu ziren ulertzapenaren teoria materialista apailatzen. Honetaz geroztik, hots, teorizazioa materialismorantz lerratu geroztik, signoaren estudioan ari izan zirenek saiatu ohi ziren, material biologiko eta sozialetik abiatuz, semiosiaren ekoizpena nola izan zitekeenari buruz teoria jasotzen.

Behin honetarainoz gero, hor ageri dira hatsarrean izendatu Charles Sanders Peirce eta Ferdinand de Saussure-k egin ohartzapen eta ikerkuntzak, euroi esker Semiotika Jakintzaren adar bilakatu delarik, zeinak, arestian laburki esplikatu bezala, hiru parte dituen: lehena, teorikoa, non, Linguistika bere baitan harturik, baina, paradoxikoki, Linguistikatikiko elementuz horniturik den; bigarrena, non Linguistikarekin bat egin den, edo areago Barthes-en arabera, Linguistikaren parte izatera etorri den; hirugarrena, non, ikusirik ezen Linguistikatikiko modeloak ez direla gauza zenbait signo-sisteman erabiltzeko, eten egiten duen Linguistikarekiko loturaz eta autonomia beretzakotzen duen. Horra hor noiz datorkion Semiotikari, Kristeva-ren arabera, sistema signifikaizaileak oro antolatu eta interpretatzeko zeregina.

2. Signoen klasifikazioa

Erruz egin izan dira signoa klasifikatzeko ahaleginak. Uste izateko da ordea ezen saio bat bera ere ez dela izan behin betikoa. Guztiarekin ere, behin autore batez, behin bestez, klasifikazioaren zehaztasuna eta prezisioa zorrotz doa. Honela bada Semiotika, aparatu teoriko on batez hornitu izatera heldu da. Klasifikazio hauek gehien batez dira parzialak, areago, kontraesanean ere erortzen dira, nahiz kontraesanok, maiz, terminuen erabilera diferente, edo bederen desberdinetarik datozen. Eta hau ez da mira egiteko, ezen, azken finean, klasifikatua izan behar duenaz beraz baliatu behar baitira klasifikatzaileak klasifikatzeko!

Signoen klasifikazioa egin izan da:

- a) kontuan harturik ea diren:
 - giza signo ala ez
 - berbal ala ez berbal
 - izatetasun artifizialeko ala naturaleko
- b) kontuan harturik:
 - espezifikazio signikoaren gradua
 - igortze-orduan den konszientzia eta intentzionalitate-gradua
 - kanal fisiko eta giza aparatu jasotzailea
 - bere signifikaizurekiko lotura
 - erreferentearekiko lotura: *indize*, *eikono* eta *symboloa*

Interesik handikoen beharbada, klasifikazioan azken lekuan doanarena da, hau da, erreferentearekiko lotura ezarri behar denekoa. Peirce-rekin abiatuz Eco-ganaino saiatu dira signoak bere erreferentearekiko dituen

hiru gradu horiei [indize, eikono eta symboloa] erantzun ematen, inoiz ere iritsi gabe guztien oniritzia erdiestera, zeren autore bakoitzak zerbait berria, orduandaino guztien oharkabean izandakoa ekartzen baitu eta hori datu berri bat da, zeinak, ber moduan, bertzeei beren ikusmoldeak errebisarazten dien. Hau, bizitzearen bertze arlo batzuetan ekintzarako frenagarri litzatekeena, Jakintzan on da, honela arituz antzinatzen baita berau, eta beronekin batera Naturaren, aberearen, gizakumearen izatetasunaz jakin litekeena ere. Hortakotz, signozko kontzeptuaren barnean ñabardurak hainbat dira nola iritzi berri bat ekartzeko gauza diren pertsonak.

Honetaz gain bada bai beste erarik signoa klasifikatzeko. Peirce-ren jarraitun Morris-ek honetara du egiten:

- *semantika*, signoa hartzen dugularik signoak berenez signifkatzten duen hartakotzat.
- *syntaktika*, signoa hartzen dugularik beste signo batzuekin sekuentziatan sar litekeen aldetikotzat.
- *pragmatika*, signoa hartzen dugularik bere jatorria nondik datorkion aldetikotzat.

3. Signoaren signifkazioa: *semiosia*

Semiosia deitzen zaio signoaren bi parteak (signifikatzaile eta signifikatua) elkarri adostu eta bat egiten direneko prozesuari. Bertze era batez erraiteko: semiosia da, Hjelmslev-ek izkiriatura mailegutzat geuganatu,

adierazpen planoaren eta edukinaren planoaren arteko elkarkuntza, *symbiosia*. Hizkuntzetan, semiosia emanik datorkigu gehien batez, eta ez dago erraiterik ordea noizdanik, baldin eta horretakotzat hartzen ez badira hizkuntzaren gramatika bera, baina ez da orduantxe ere, zeren gramatikak berak bere baitan baitarama bere gain ekiteko erregulamendua. Ordea, gramatika horri bizia ematen diona hitzuna da. Elkarren beharkizunean daude. Baina semiosia emanik etorri arren ordea, prozesu honek, geroxeago linguistikaren kontzeptu analitikoetan ikusiko denez, begien aitzinera dakar signoaren konbentzionalitate edota arbitrarietateari buruzko problema, gizakumeak kontzientia duenez geroztik present dagoena. Auzi hau, guk, alde batera utzi behar dugu, eta ez hain zuzen interesik gabea delako, ezen horretantxe egon baitaiteke Epistemologiaren gako handienetako bat, baizik berau ez dugulako hemen zeregintzat hartu.

Systema

Sistemaren ideari osotasunaren eta parteen idea darraikio ezinbertzez, parteen eta osotasunaren arteko joko hertsia alegia. Ezen sistema da, parteek elkarren artean moldatzeko eta jokatzeko araudi eta erregulamenduen dekalogo. Gainera, sistema oro, bertze sistema nagusiago batean ezarria dago, eta hau aldi berean beste handiago batean... hel gintezkeelarik horrela kultur unitate orobesarkatzaileetaraio.

Puntu honetan ohartzapen laburto bat egin behar da sistema eta kodigorearen arteko bereizkuntzaz. Hura, sistema, ez da konbentzio huts-hutsa, ezen bertzela pentsa dezagun hizkuntzan. Sistemari, eta batibat sistema linguistikok, badago ikaskuntzan zehar barneratu behar diren balore zenbait, hizkuntzarekin bat-batera doazenak. Gizartea sistemez formatua dago, eta hizkuntzaren kasuan, sistema gauza soziala izanki, beratu da gizakume bakoitzari bere erreferentzi sistema osatzen diona, eta hortik dator bada, pertsona oro bizi izatea bere hizkuntzaren sistema barrenean, halaberrez. Hizkuntzak eduki gauza. Kodigoa aldiz, konbentzionalago da, araudi sinpleagoz ari da, eta honetaz gain, beti dago hizkuntzaren sistemara ekarria eta interpretatua izateko aukera.

Linguistika eta semiotika

Saiatu gara erakusten nola joan den Semiotika bere karaktere propioak apailatuz beti ere Linguistikaren parean eta Linguistikari buruz markatu behar izan dituen bereizkuntzei esker. Orain ikus ditzagun bada Linguistikaren kontzeptu analitiko nagusiak, ikerkuntza semiotikarako lagungarri direnak. Ikerkuntza eta aurkikuntza hauek, gehien batez, Linguistikaren fase teorikok erdietsiak dira.

1. Hizkuntza eta mintzaira

Dikotomia hau funtsezko da Saussure baitan. Mintzaira egitate partikularra da. Hizkuntza aldiz, mintzaira ez den gainerako oro da; badarama, beronek, balore-sistema

bat, instituzio soziala dena. Honetaz gain, ez dago hizkuntzarik mintzairarik gabe, ez eta mintzairarik hizkuntzaz landa. Dikotomia hau, geroztiko autoretan oraino ere espezifikoago egin izan da. Esateko: *Skhema, Norma-Erabilera-Mintzaira* (Hjelmslev); *Systema, Norma eta Mintzaira* (Coseriu).

2. Signifikatzaile eta Signifikatua

Signifikatzailea eta Signifikatua, bitzu dira signoaren osagarri. Lehena da forma materiala (akustikoa, bisuala), bigarrena, erreferente bati dagokion kontzeptua. Arestian ikusi bezala, autoreek badituzte iritzi desberdinak puntu honetan, batibat, *indize* eta *symboloaz*.

Signoen artean, era berean, bereizi behar dira: batetik, unitate signifikatzaileak, monema izeneztatuak, hauetariko bakoitzak erranahia duelarik, eta honenbestez hizkuntzaren lehen artikulazioa deritzanean gaude; eta bestetik berriz, unitate bereizgarriak, zeintzu diren monema barneko parte signifikantza gabekoak, fonema deituak, beratu delarik bigarren artikulazioa deritzana.

3. Sintagma, paradigma

Bi eratakoa da, mintzaira prozesuaren barnean, terminu linguistikok arteko lazamendua eta harremana: lehenik, sintagmatikoa deritzana, denbora iragan arau ematen dena, zeren ezin erran baitaitezke bi hitz ber mementuan, hitz bata besteari darraikio; bigarrenik, paradigmaticoa deritzana, honekin erran nahi da ezen

terminuek badutela ordenamendu bat izendatu berri dugun lerro sintagmatikoan, hau da, terminuak, bakoi-tzak bere substanziaren arabera, klasifika daitezkeela kategoria gramatikaletan: sustantibo, adberbio, berbo, adjektibo, etab. ...

4. Denotazioa eta konotazioa

Denotazioa da, egoera eta testuinguru jakin batean sortzen den lotura eta atxikimendua terminu eta erreferentearen artean.

Konotazioa deritzo, erreferentzia denotatiboaz harat sortzen den bigarren erranahiari, beti ere bigarren erranhai hau emana etortzen delarik honelako edo halako kultur-gunetik edo memoria amankomun eta konpartitutik.

5. Komunikazio-funtzioa

Linguistikako ikerleek on-ongi bereizi dituzte, batetik komunikatzeko asmoz egindako egitate eta gertakariak, eta bestetik horrelako asmorik gabekoak. Lehenak signotzat hartuko ditugu, bigarrenak ordea indizio eta sintomatizat.

6. Signoaren arbitrariedadea

Hizkuntz sistemen beste karakteristika bat da euron arbitrariedadea. Baina ez beti ordea. Saussure-k berak dio ezen badela zenbait signo bere signifikaizailea guztiz arbitrarioa ez duena; sinbolo deritze honelakoei. Hau ontzat hartu arren, Linguistikaz landako gaia da berau, Poetika edota Estetikari lotuago dagoena, zeren noiz, nola eta zergatik jakin liteke ezen

signifikatzailea eta signifikaizaren artean harreman edo egokitzapen naturala dagoela. Nolanahi ere, ezinago arbitrario izatetik konatural izatera, bi muturren artean badago arlo zabala. Saussure bera saiatu zen luzaz eta sakonki tema honetaz bere epigramen ikertzapenean, egun Greimas izan delarik horri ekin izan diona.

7. Signoen sistema

Sistemaren ideari, erranik doan bezala, osotasunaren eta parteen ideia jarraitzen zaio, hau da, osotasunaren eta parteen arteko harreman, lotura eta jokoa. Eta hau guztia, arau eta erregulamendu finko eta hertsu baten barnean.

Honetara, hizkuntza signo-sistema ezagun eta aski konplexu bati jarraitzen zaio.

Ordea, badira beste komunikabide sinpleago batzuk, sistema ezagunik ez dutenak eta, azkenik, sistemagabeak.

Azken solasa

Hatsarrean, filosofiak erakutsi zituen signoaren bi parteak. Geroz, logika-matematikoa kontuan jausi zen signoez osatu sistemez. Honen ondoan, Linguistikari heldu zitzaion hizkuntzaren sistemaz eta gainerakoez ere aritzeko ardura. Baina dagoeneko problema ez da Jakintza-adar bati dagokiona, problema ontologikoa da. Ezen berehala sortu izan dira gisa honetako galderak: Logika, absolututzat harturik, ez al da hizkuntzaren

logika? Hizkuntza ororen sakon-
gunetan, banan eta bakarka harturik,
ba al da Logika bat eta bera? Ba al
daiteke pentsamendua izan hizkuntzaz
harat?, eta alderantziz. Baina ordea,
hau guztia nola jakin baldin eta
kategoria gramatikalez harat, ulertu
eta adierazteko, ez baitago deus beste
tresnarik hizkuntza bera ez bada!

Hortaz Semiotikak balio izan du,
besteak beste, signoan sakontzeko,
signoa gogoeta eta pentsamenduaren
lehen tema bihurtzeko. Beharbada balio
izan du, filosofia eramateko berriz ere
lengoiaren gainean eta partikularzki
hizkuntzarenean itaun egiteko eginkizu-
nera. Eta signoa diogunean berdin
diogu testua nola diskurtsua. Ikertzai-
leek areago joan nahi dute. Zer da,
diote eurok, signoa (testua, diskurtsua)
ageri, jaulki baino lehenagoko mekanis-
mo mentala? Hau, gaur-gaurkoz,
misterio hutsa da, baina Jakintzaren
zeregina da horretarantz ibiltzea, eta
horretan dihardute hizkuntzaren filo-
sofian ari direnek, psikologo, logikoari,
matematikariek..., erne daudelarik
biologo, kimiko, neurologoen berrietara.
Honela, Semiotikak bere helduta-

sunera iritsi denean, Filosofiak egin
izan dituen galderetara garamatza,
zeren Gnosia edo Jakintza, konben-
tzionalki partikatua den arren efektibi-
tate handiago izateko, bat eta bera
baino ez baita. Baina zer?, zein? Ez da
erantzunik, ahalegina eta ekina baizen.

Sinopsia:

Hirurogeigarreneko hamarkadan,
eta oroz gain Frantzian, etorki
disziplinari askotako intelektual eta
ikertzaile zenbait, Roland Barthes-en
*Le Degré zéro de l'écriture suivi de
Nouveaux Essais critiques* liburuak
ekarritako astindu intelektualaren
ondoan, aurriritzi eta mito burges-
tzipien salakizuna egiteko asmoz,
abiatu ziren. Betiere Saussure-n
metodo linguistikoa oinarritzat zuten
harturik.

Semiologiako Aldizkari Internazio-
nala deritzana izan zen guztien
bilgunea. Guztien ikertzapenaren
objektua: testua, horixe baita komu-
nikazio-sistema orotan ageri dena.